

# Mondragon ZTIM Hub ekintzak

## Aldi baterako erakusketa ikastetxeetan: EMAKUME ZIENTZIALARIAK

Astebetetz izango dira ikastetxean, denentzat ikusgai, 6 emakume zientzialarien panel informatiboak. Helburua da ikusaraztea emakumeek ere ekarpen handiak egin izan dituztela (orohar gizonezkoek baino oztopo handiagoak gaindituz, gainera) eta egin ditzaketela, zientzia eta gizartera.

- Lanketa DBH-ko lehen mailentzat gomendatzen da
- Mutil eta nesken arteko berdintasuna sustatzen du, aurreiritziak gainditzen lagunduz erreferenteak erakustearen bidez

## Nola prestatzen da?

1. Panelak ikastetxera eramatean, aurkezpen bat egingo zaie ikasleei.
2. Erakusketa jartzen denetik denbora-tarte batera, klasean horri buruzko ariketa bat burutuko da.
3. Ariketa: taldeka banatu, talde bakoitzak zientzialari bat aukeratu eta aurkezpen bat prestatu.



Aurkezpenerako gidoia guk emango dugu

## Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Inplementazioa
10 min	<b>Irakasleak:</b> panelak <b>ZTIM Hub txokoan</b> kokatzean, aurkezpen txiki bat egingo du ikasleentzat, aldi baterako erakusketa zertan datzan azalduz
Aste 1	Erakusketa ikusgai egongo da guztientzat <b>ZTIM Hub txokoan</b> .
30 min	<b>Irakasleak:</b> Ikasgelan, ikasleak taldeka banatu (6 taldetan) eta talde bakoitzari panelean agertzen den emakume bati buruzko aurkezpen labur bat prestatzeko eskatu. <b>Ikasleek:</b> aurkezpenak prestatu, ondorengo puntuak bilduz: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biografia labur bat</li> <li>• Ekarpen garrantzitsuenak</li> <li>• Aurre egindako zailtasunak</li> <li>• ...</li> </ul>
1 h	<b>Ikasleek:</b> talde bakoitzak 10 minutuko aurkezpen bat egingo du gela guztiarentzat ikasgelan.

